

IXILLIK NAGOANEAN...

(Sara Teasdale)

Txillik nagoanean eta nere gañean jorrail ar-
[giak

bere motots bustiak astindu,
nere illobian atsekabez makurtzen bazera ere,
etzait ajolarik.

Zugaitz ostotsuak pozten diran pakea izango
[dut

euriak magalak okertzen ditunean,
ta zu orain zeran haño ixillago ta otzago
izango naiz.

Rivers to the Sea (1915)

Otsalar'ek euskeratuta.

IPARRAGIRRE'EN GITARRA

(Adolfo Larrañaga)

Mundua garaitzen duan elburuz
kantatzen du Iparragirre'n gitarrak;
Gernika'ko arbolaren urretxindorrak
libertadea darama eztarri doñuz.

Bere gitarrarenak diran sei sokaz
adoretuaren sei probintziak,
dituan bete-bearrik demokrataenak
Aberriaren geznari jator izanaz.

Munduz doan bertsolaria ezta ijitoa,
erreegen lerroak eskuetan dituala,
espa-miñez ta soñean duala puñala.

Euskalerrriaren bidale bat da,
bere gorentasun argiari begirari
ereserkirik orokarrenez kantari.

Otsalar'ek itzulita